

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA




Erakunde autonomiarena
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Zertarako balio du laburpen batek?

Laburbiltzeak bi esanahi ditu:

- a) Adierazi nahi duguna termino labur eta zehatzetara murriztea.
- b) Azaldutako gai baten funtsezkoena adieraztea.



Laburpen bat, beraz, **testu baten puntu garrantzitsuenei buruzko azalpen labur, zehatz eta fidela** da. Informazioa ematea du helburu, eta, **argia** zein **koherentea** izateaz gain, **objektiboa** ere izan behar du.

Ahoz edo idatziz egin daiteke.



Laburpenen erabilera batzuk

Eremu gehienetan erabiltzen dira laburpenak.

Jarraian, laburpenaren lau erabilera
deskribatuko ditugu.

1

Zertarako balio du laburpen batek?

Argitalpenetan zein ahozko aurkezpenetan, dagoeneko landu dugun gaiari buruzko ideia garrantzitsuenak nabarmentzeko.

Testu baten bitartez, esaterako:

Laburbilduz, titulu eraginkorrak osatzeko, lehenengo, edukia irakurri eta ulertu behar duzu. Ondoren, informazio garrantzitsuena hitz esanguratsu gutxi batzuetara laburtu behar duzu. Denbora eta praktikarekin, apurka-apurka hobetzen den trebetasuna da.


(Komunikazio Elektronikoa. IVAPen gomendioak web-orriak idazteko, 184. or.)

Laburpenen edukia adierazteko, hainbat modu daude. **Eskemak, grafikoak eta taulak**, adibidez, ideia garrantzitsuenak nabarmentzeko laburpenak dira.


TRAMITAGUNE/PLATEA

Eusko Jaurlaritzaren estrategia

Eskema teknologikoa



Euskadin 30 urtetik beherako ama izan zuten jaioberri* kopuruaren bilakaera, amaren nazionalitatearen arabera (zenbaki absolutuak)



* Bizirik jaiotakoak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten datuak oinarri hartuta (Jaiotzen Estatistika)

2

Zertarako balio du laburpen batek?

Testuetan prozesuak deskribatzen ditugunean, ondorioak adierazteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko txosten sozioekonomikoa 2006

[...]

6. Ondorioak

Ondorio modura honako hau egiaztatu behar da: Euskal Autonomia Erkidegoa migrazioen aro berrituan atzerriko immigrazioaren jomuga bihurtu da. Jomuga ez da albokoak bezain garrantzitsua, baina migrazio-fenomenoa etengabe gertatzen ari da; eta geroz eta gehiago, gainera.

3

Zertarako balio du laburpen batek?

Edukiak iragartzeko; izenburu, lotura edo testu motzen bitartez, esaterako.

Izenburuak laburpen iragarleak dira, hitz gutxitan jaso behar baitute jarraian datorren edukia.

COVID-19. Eusko Jaurlaritzaren informazioa eta neurriak

2021-2022 ikasturtean UPV/EHUn sartzeko egin beharreko tramiteen egutegia

Zer da egoitza elektronikoa

Eremu digitalean, garrantzi handiko elementua da laburpena, irakurleari informazio bilaketa lanetan laguntzen baitio.

Izenburuen azpian, **testu motz bat** gehitu ohi dugu webguneetan. Laburpen hori egokia bada, irakurleak berehala eta zehatz-mehatz jakingo du zer informazio aurkituko duen izenburuaren loturan klikatuz gero.



Nire karpeta

Hainbat kudeaketa egin ditzakezu:
Espedienteak ikusi, jakinarazpenak jaso,
ordainketak egin eta ziurtagiriak kontsultatu.

Adibidean ikusten dugunez, ikonoaren beheko aldean izenburu batek iragartzen du “Nire karpeta” atalaren edukia. Izenburu hori lotura da. Izan ere, webguneetako menuetan, izenburu gehienak **loturak** izaten dira.

Ondorioak
adieraztea.

START

Blogetako posten laburpenek funtzio bera dute; alegia, post bakoitzaren edukiaren nondik norakoak iragartzea.

Argi idazteko aholkuak



Esapide konplexuak

Administrazioaren esparruan, oraindik ere errotuta dago egitura korapilatsuen aldeko joera.

4

Zertarako balio du laburpen batek?

Administrazioko prozedurak errazteko.

Administrazioko prozedurak konplexuak izaten direnez, ohikoa da horiek errazteko laburpen mota desberdinak erabiltzea:

- laburpen exekutiboak
- erabakien laburpenak
- deialdien laburpenak
- ebazpenen laburpenak Euskal Herriko Agintzaren Aldizkarian argitaratzeko
- espedienteak tramitatzean, aldaketen laburpenak
- balantzeen laburpenak
- ...

★ Bi hauetan klikatuz gero, nolakoak izan ohi diren ikusi ahal izango duzu:

- Tramitazio elektronikorako gida (herritarrentzat)
- Euskal Autonomia Erkidegoko ur-baliabideak kudeatzeko azterketa-kasuaren laburpena

Laburpenak, beraz, nonahi
topa ditzakegu. Eta, egokiak
badira, **bi onura** garrantzitsu
dakartzate:

- **Ezinbesteko edukia
transmititzen dela
ziurtatzea.**
- **Eduki hori ulertzen
laguntzea.**

